



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2015-06-16

BILERA ZENBAKIA: 21

ORDUA ETA LEKUA: Udaletxean, arratsaldeko 19,00tan

PARTEHARTZAILEAK: 7 emakume eta 1 gizonezko

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

TIPI-TAPA: iada martxan dago eta harrera oso ona izan du. 2 saio egin dira eta 15 lagun inguru bildu dira, Haurren Herria kamixetak banatu dira 2. saioan eta ibilbidea bukatutakoan edo tartean, denak elkarrekin kafetxo bat hartzen dute.

Gai honekin lotuta, herriko medikuak eta erizainak eman zuten hitzaldia ere oso aberasgarria izan zen eta Podologoaren saioak ere martxa politean hasi dira, hurrengo saioa Uztailak 15 izango dutelarik.

DESFIBRILADOREA: Gaia iada lotuta dago, kostea badakigu, baina erabakia falta da. Erabileraren inguruan ikastaro bat egitea ezinbestekoa ikusten dugu, ahalik eta jende gehienek erabiltzen jakin dezan larrialdi bat gertatu ezker. Gailuaren kokapena ere garrantzitsua da baina ez dago erabakita. Formakuntza saioak iraila edo urrirako aurreikusten dira.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
3.adineko personen egoeraren "argazki" bat prestatu	Hurrengo bilera	Mertxe
Desfibriladorearen inguruan formakuntza data zehaztu	Hurrengo bilera	Jabi

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, Uztailaren 14-an egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

- Denboraren bankuko zirriborroa.
- Herriko jaietarako bokata jana antolatzen hasi.